

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

51. astea (2023/12/18-2023/12/24)

Gripe-birusaren zirkulazioak handitzen jarraitzen du. COVID-19aren intzidentziak ere gora egin du aste honetan, bronkiolitisaren diagnostikoek eta ABSren detekzioek, aldiz, behera egin dute.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 578,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (602,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak gorantz egiten jarraitzen du; bronkiolitisarenak, aldiz, beherakada nabarmena izan du.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 85 lagin jagoleen % 67,1 baieztatu da, 6 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 7,1), 30 gripe-birus (positibotasuna % 35,3) eta 8 ABS (positibotasuna % 9,4) atzeman direlarik. 16 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 18,8).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 20,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (20,6/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 347 SARS-CoV-2, 552 gripe-birus eta 222 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 578,2 kasukoa izan da (602,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 489,9/100.000 izan da Araban, 585,4/100.000 Bizkaian eta 607,4/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2147,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 817,1 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 45-64 urteko adin-taldean izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN INTZIDENTZIA-TASAK ETA TASEN ARRAZOAIA ESIAREN ETA ASTE EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA. LEHEN MAILAKO ARRETAKO SAREA. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 51. astea	Tasa 50. astea	Tasen arrazoaia (% 95 KT)
Arabako ESI	530,4	549,8	0,96 (0,90-1,04)
Arabar Errioxako ESI	937,3	971,4	0,96 (0,74-1,25)
Barakaldo-Sestaoko ESI	443,4	524,0	0,85 (0,76-0,95)
Barrualde-Galdakaoko ESI	630,8	604,8	1,04 (0,98-1,11)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	614,4	640,0	0,96 (0,90-1,02)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	608,7	641,1	0,95 (0,87-1,04)
Uribeko ESI	497,2	505,0	0,98 (0,91-1,07)
Bidasoako ESI	451,7	480,3	0,94 (0,81-1,09)
Debararrenako ESI	629,2	732,4	0,86 (0,76-0,97)
Debagoienuko ESI	398,7	506,6	0,79 (0,67-0,93)
Donostialdeako ESI	562,6	627,7	0,90 (0,84-0,95)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	840,2	777,5	1,08 (0,98-1,19)
Tolosaldeako ESI	714,1	650,3	1,09 (0,96-1,25)

Gripe-sindromearen tasak gora egin du berriro aste honetan eta 36,7 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (30,4/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du nabarmen eta 596,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1164,6/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 85 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 67,1 baieztatu dira. 6 SARS-CoV-2, 30 gripe-birus (22 AH1pdm09 eta 8 AH3) eta 8 ABS atzeman dira. 16 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasunak gora egin du eta % 7,1eko balioan kokatu da (% 1,1 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak berriro gora egin eta % 35,3ra heldu da (% 30,0 aurreko astean) eta ABSrena % 9,4ra igo da (% 7,8 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 18,8koa izan da (% 18,9 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE


	51. astea		50. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	30	35,3	27	30,0	95	15,2
SARS-CoV-2	6	7,1	1	1,1	40	6,4
ABS	8	9,4	7	7,8	70	11,2
Metaneumobirus	1	1,2	3	3,3	7	1,1
Parainfluenza	0	0,0	1	1,1	17	2,7
Adenobirus	4	4,7	1	1,1	17	2,7
Errinobirus	16	18,8	17	18,9	170	27,2
Urtaroko CoV	1	1,2	1	1,1	16	2,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 20,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (20,6/100.000 aurreko astean), 20,7/100.000 emakumeetan eta 20,8/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorako adin-taldean eman da, 57,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherako adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 46,3 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasak behera egin du 5 urtetik beherakoetan, gora egin du 45-64 urteko adin-taldean eta mantendu egin da beste guztietan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi biologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasuna % 29,3raino igo da aste honetan (% 20,0 aurreko astean) eta SARS-CoV-2rena % 10,0ra (% 8,6 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 20,0ra jaitsi da (%28,2 aurreko astean) eta errinobirusarena % 14,2koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	51. astea		50. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	369	10,0	336	8,6	2796	11,5
Influenza	352	29,3	325	20,0	2493	12,4
ABS	305	20,0	273	28,2	2029	23,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 347 SARS-CoV-2, 552 gripe-birus eta 222 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 552 gripe-birusetatik, 413 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 18 A(H3) eta 121 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 1772 detekzio erregistratu dira, 1761 (% 99,4) A motakoak eta 11 (% 0,6) B motakoak. Azpitipatutako A motako 438 birusetatik, 70 (% 16,0) A(H3) eta 368 (% 84,0) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, azaroan, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboan % 51,3 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 21,3), JD.1.1 (% 14,9), EG.5.1 (% 11,8) eta BA.2.86 (% 9,5) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 51. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 32,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (19,3/100.000 aurreko astean); 32,1 gizonetan eta 33,1 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 74 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (59 ospitaleratu aurreko astean), 35 gizon eta 39 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 87,8 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 51. astean, COVID-19 21 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (aurreko asteko kopuru berdina). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 15 izan da, aurreko astean baino bat gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko abenduaren 27an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**